Editorial MIC



# ALKATEAREN AGURRA

Santixau jaiak iristean tarte bat egiten dugu, iragaiten ari garen une latz hauetako arazo eta kezkak alde batera utziz, proposatzen zaizkigun jai-ekitaldi anitz eta ezberdinez gozatzeko.

Aurten ere zuengana Ermuko Alkate legez zuzentzeko ohore handia dut, eta Santixau Jaietako programa aurkezteko da, tarte bat irekitzen dugun eta, arazoak eta kezkak baztertuz, gure denboraren zati bat jai-ekitaldiez gozatzeko aprobetxatzen dugun urteko momentu hori.

Eta aurten ere proposatzen zaiguna gozatzeko arrazoi potoloz beteriko programa bat da. Kirola edo musika, edozelako musika, gustatzen bazaizu, kaleko antzerkia eta txarangen jolasak, gastronomia…. dituzun gustuak dituzula, daukazun adina daukazula, seguru programa honetan zuri egokitzen zaizun jarduera bat gutxienez aurkituko duzula.

Hori horrela izan dadin herritar kopuru handi bat, Kultura Sailarekin elkarlanean, antolaketan aritzen da beraien lan bikaina eskaintzeko, eta lankidetza-ahalegin horretan datza neurri handi batean gure jaien arrakasta. Horregatik Jai Batzordean parte hartzen duzuen pertsona guztioi eskerrak eman behar dizkizuet, behin eta berriz, zuen denbora eta ahalegina herri guztiaren mesedetan emanez erakusten duzuen eskuzabaltasunagatik.



Udalekook herritarrentzako Ermua bat egiten ahalegintzen gara, espazio publiko berriak irekiz, dagoen espazioa guztiok erabiltzeko formula berriak sortuz, eta jaiak aukera paregabea dira horretaz guztiaz gozatzeko, denok biltzen eta elkarbizi garen guztion espazio horretaz gozatzeko. Horixe da, hain zuzen ere, 2015 urte honetako Santixau Jaietarako nahiko nukeena: goza dezagula elkarrekin gure hiriaz.

¡GORA SANTIXAU JAIAK!

**Carlos Totorika**
*Alkatea*



**Argitaratzen duena:** Ermuko Udala
**Azala:** Lucas Fernandez. 2015eko Santixauko kartel lehiaketaren irabazlea
**Argazkiak:** Ainhoa Lasuen eta Roberto Tejada

MIC Edizioak
Tel·: 902 271 902
www.editorialmic.com

# 2015EKO SANTIXAUAK

## ERMUKO JAIAK (UZTAILAREN 14TIK 27RA)



## UZTAILAREN 14a, ASTEARTEA

**Arratsaldeko 6etan,** Lobiano Kultur Gunean, **ARGAZKI ERAKUSKETA:** "Afrikak: jendeak lurrak eta errealitateak", hilaren 20ra arte.

**Arratsaldeko 6etan,** Okin-Zuriko kirol gunean **ARETO-FUTBOL TXAPELKETA**ren hasiera, Skorpio K. T.k antolatuta.

**Arratsaldeko 7etan,** Orbe Kardenalaren plazan, harra eta jatorrizko bekatua lehiaketek emango diete hasiera Txarangen Batzordeak antolatutako **TXARANGEN ARTEKO JOKOei.**

**Gaueko 10,30ean,** Martxoak 8 plazan, Euskal Birusak antolatutako **MAGIA IKUSKIZUNA** Kidam Magoaren eskutik-

## UZTAILAREN 15a, ASTEAZKENA

**Arratsaldeko 6etan,** Okin-Zuriko kirol gunean **ARETO-FUTBOL TXAPELKETA**.

**Arratsaldeko 7etan,** Orbe Kardenalaren plazan, **TXARANGEN ARTEKO JOKO** gehiago. Oraingo honetan soka-tira lehiaketa eta artaburu proba izango dira.






arroza pasako jatzu!
egin euskaraz

**Gaueko 10,30ean, BERTSO JAIALDIA** Martxoak 8 plazan**,** Deba-Beheko Bertso Eskolak antolatuta. Bertan izango dira, Asier Azpiroz, Maialen Akizu, Beñat Ugartetxea, Eli Pagola, Jokin Bergara eta Eneritz Artetxe bertsolariak. Gai jartzaile: Unai Rodriguez

## UZTAILAREN 16a, OSTEGUNA

**Arratsaldeko 5etatik,** Orbe kardenalaren plazan, Jaietan ere tratu onen aldeko **PHOTOKLOWNA** , Intujai antzerki taldeak girotuta. Antolatzaile: Ermuko tratu onen aldeko plataforma elkartea.

**Arratsaldeko 6etan,** Okin-Zuriko kirol gunean **ARETO-FUTBOL TXAPELKETA**.

**Arratsaldeko 7etan,** Orbe Kardenalaren plazan **TXARANGEN ARTEKO JOKO** gehiago. Oraingo honetan triatloia eta pepino probak izango dira.

**Gaueko 10,30ean, KONTZERTUA** Siroka taldearen eskutik Martxoak 8 plazan**,** Euskal Birusak antolatuta.

## UZTAILAREN 17a, OSTIRALA

**Arratsaldeko 6etan,** Okin-Zuriko kirol gunean **ARETO-FUTBOL TXAPELKETA**.

**Arratsaldeko 6etan,** Orbe Kardenalaren plazako pilotalekuan, **PALETA TXAPELKETAREN FINALAK,** Paleta klubak antolatuta. Euria egonez gero, partidak Aritzmendi pilotalekuan egingo dira.

**Gaueko 10,30etan,** Orbe Kardenalaren plazan **PLAY-BACK LEHIAKETA,** Txarangen Batzordeak antolatuta.

## UZTAILAREN 18a, LARUNBATA

**Goizeko 8etan,** Mallabiko Pedro Deunaren zelaian, **TXAKURREN ERAKUSTALDI-LEHIAKETA**. La Verdad ehiza eta arrantza elkarteak antolatuta.

**Goizeko 9etan,** Okin-Zuriko kirol gunean, **ARETO-FUTBOL TXAPELKETA**ren azken fasearen hasiera.

**Goizeko 10etan,** Orbe Kardinalaren plazatik **URKO 69etan ezetz! VII. IGOERA KONTROLATUAri** hasiera emango dio Artarrai mendizale taldeak.

**Goizeko 10etan,** Orbe Kardenalaren pilotalekuan **ARKU-TIRO PROBA** Beti-Ondo arku-tiro taldeak antolatuta. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du.

**Goizeko 11etan,** Lobiano Kultur Gunean, **ERROL eta ESTRATEGIAREN JOKOAK** Draconia taldeak antolatuta.

**Goizeko 11etan,** Orbe Kardenalaren plazan Alejandro Franco Maisu Internazionalak eskainitako **ALDIBEREKO XAKE PARTIDAK,** nahi duen guztiari zabalik parte hartzeko, Ermutarrak Xake Taldeak antolatuta.

**Goizeko 12etan,** Gipuzkoako etorbidean 10ean dagoen gunean, David Genicio-ren omenez **ERMUA HIRIKO IV. SLOTRALLY**aren hasiera, Slot Ermua taldeak antolatuta.







**Arratsaldeko 4etan**, Orbe Kardenalaren plazan, **HERRI-ARTEKO XAKE PARTIDA AZKARREN XX. LEHIAKETA**, Ermutarrak Xake Taldeak antolatuta.

**Arratsaldeko 4:30ean**, Orbe Kardinalaren plazan **XIII. MUS TXAPELKETA HERRIKOIA**, Afaltzaindia taldeak antolatuta.

**Arratsaldeko 7etan**, Orbe Kardenalaren plazan, **DANTZA EMANALDIA** Txindurri taldearen eskutik.

**Gaueko 11:30ean**, San Pelaio plazan, El arrebato abeslariaren **KONTZERTUA.**





## UZTAILAREN 19a, IGANDEA

**Goizeko 9:30ean**, **MENDI-BIZIKLETAKO XX. HERRI MARTXARI** emango zaio irteera Orbe Kardinalaren plazatik, Urko Mendiko Txirrindulariak taldeak antolatuta.

**Goizeko 10etan**, San Martin plazan, **BLOOD-BOWL TXAPELKETA,** Draconia taldeak antolatuta.

**Goizeko 10:30ean**, San Pelaio plazan, **IRRATIZ KONTROLATURIKO KOTXEEN 'ERMUA HIRIA' XVIII. TXAPELKETA,** Eztanda taldeak antolatuta.

**Arratsaldeko 7etan**, Orbe Kardinalaren plazan **MUSIKA eta DANTZA JAIALDIA,** Erkidegoen eguna ospatuz herriko kultur zentroek antolatuta, Serbiako Akud Branko Krsmanovic eta Indonesiako Krida Budaya taldeen eskutik.

## UZTAILAREN 20a, ASTELEHENA

**Arrasatsaldeko 7etan**, Orbe Kardenalaren plazan, **TXARANGEN ARTEKO JOKOAK**: soka-tiraren finala eta kuboen proba.

**Gaueko 10,30ean**, Valdespina Markesaren parkean, **KONTZERTUA** Sengaleko Ndjouk Band taldearen eskutik. Antolatzaile: Komite Internazionalistak

## UZTAILAREN 21a, ASTEARTEA

**Gaueko 9etan**, Orbe Kardenalaren plazan, **HERRI OGITARTEKADA,** ogitarte eta edarien salneurri bereziaz banaketarekin, Txarangen Batzordeak antolatuta.

**Gaueko 10,30ean**, Martxoak 8 plazan **TXARANGEN ABESTI-LEHIAKETA**. Lehiaketatik kanpo Irulitxa txarangak joko du.

## UZTAILAREN 22a, ASTEAZKENA

**Arratsaldeko 7etan**, Orbe Kardenalaren plazan, **KONTZERTUA** Senegaleko Fila Bougui-gui taldearen eskutik, PAACE elkarteak antolatuta.

**Gaueko 10:30ean,** Orbe kardenalaren plazan, **KALE IKUSKIZUNA,** Los Infoncundibles taldearen eskutik.

## UZTAILAREN 23a, OSTEGUNA (Umeen eguna)

**Goizeko 10:30ean, BURUHANDIAK** Orbe Kardinalaren plazan.

**Goizeko 11etatik ordu 1era eta arratsaldeko 4retatik 7etara,** Orbe Kardinalaren plazan, **HAURRENTZAKO PARKEA eta TAILERRAK,** Txarangen Batzordeak antolatuta (euria eginez gero ekitaldiak Aritzmendi pilotalekuan izango dira).

**Arratsaldeko 5etan, HAURRENTZAKO TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Txaranga Batzordearen eskutik eta BM Supermerkatuen laguntzarekin.

**Arratsaldeko 7etan,** Orbe Kardinalaren plazan “A ze nolako banda parranda!” **HAURRENTZAKO MUSIKA-IKUSKIZUNA**.

**Arratsaldeko 8:30ean, APAR JAIA** Orbe kardinalaren plazan.

## UZTAILAREN 24a, OSTIRALA

**Arratsaldeko 4retan,** hilaren 27ko eguerdiko 12ak arte iraungo duen **POSTUREO ARGAZKI LEHIAKETA**ren hasiera, Ermuko Gazte Asanbladak antolatuta.

**Arratsaldeko 5etan,** Patxi plazan, jai opari banaketa Drogomenpekotasun Prebentzioko Udal Zerbitzuen eskutik.

**Arratsaldeko 7etan,** Orbe Kardinalaren plazan **TXARANGEN AURKEZPENA** eta ohiko **KALEJIRA** Irulitxa eta New Tocados musika bandek eta Brincadeira batukada taldeak alaitutako.

**Gaueko 11etatik goizeko 4etara, DANTZALDIA** Orbe Kardinalaren plazan Nueva Alaska orkestrarekin.

**Gaueko 12:30etatik goizeko 4etara,** San Pelaio plazan, Beti txarto taldeak antolatutako **MUSIKA ELEKTRONIKOAREN JAIALDIA** ondorengo taldeekin:

Charles Ramírez (Clarisse, Suara, Hof Rec.)
Stan Garac (Viva Music, Hof Rec.)
Javier Ganuza (Modern People, Revolution Rec.)
Erikss (Material, Hof Rec.)
Alexander M (Technoxp)

## UZTAILAREN 25a, LARUNBATA

**Goizeko 7etan, TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Gaztela-Leoneko Kultur Zentruak antolatuta.

**Goizeko 7:30ean,** Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan Txarangen batzordeak antolatutako **BARRUS partidak** izango dira. Laguntzaile: Zabal taberna.

**Goizeko 8etan, SOKAMUTURRA** izango da Ongaraiko Eskolako patioan.

**Goizeko 11etan,** San Pelaioko Bolatokian **BOLO-PALMAKo SANTIXAUAK 2015 SARIA,** Ermuko Peña Bolística Montañesa e Kantabraiko Berangako bolo taldearen aurka. Antolatzaile: Peña Bolística Montañesak.

**Eguerdiko 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara, HAURRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.

**Eguerdiko 12,30ean,** Santiago Apostoluaren elizan **MEZA** izango da patroiaren omenez.







**Eguerdiko 12:30ean**, **HERRI-KIROL** ikuskizuna Orbe Kardinalaren plazan, probak eta partehartzaileak honakoak dira:
HARRIJASOTZAILEAK: Inaxio Perurena, Jon Gisasola eta Aritz Etxebarria
IPARRALDEKO JOKOAK: Zelai-Luze eta Karmele Gisasola
BIKOTEKA PROBA: Jon Gisasola eta Ioritz Gisasola Aritz Etxeberria eta Hodei Ezpeletaren aurka.
AIZKOLARIAK: Bihurri II Zelai II-ren aurka.

**Eguerdiko 12,30ean**, **KALEJIRA** Korko txarangaren eskutik.

**Arratsaldeko 4etan**, San Pelaioko Bolatokian **BOLO-PALMAko SANTIXAUAK 2015 SARIA,** Ermuko Peña Bolística Montañesa Kantabriako Berangako bolo taldearen aurka. Antolatzaile: Peña Bolística Montañesak.

**Arratsaldeko 5etan**, Aritzmendi pilotalekuan **PROFESIONAL ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK:** Mtnez. de Irujo-Irusta Altuna III- Zubietaren aurka. Honen aurrean, 2.mailako profesionalen arteko beste partidu bat eskainiko da. Antolatzaile: Ermuko Pilota Taldea.

**Arratsaldeko 6,30etatik 9,30etara**, San Pelaio plazan jarriko den gune berezian, “Sie7e” **ANTZERKI IKUSKIZUNA,** Ymedio Teatroaren eskutik, 10 minutu iraungo dituen emanaldietan.

**Arratsaldeko 7etan**, Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA** Ondalan konpartsaren eskutik.

**Arratsaldeko 7etan**, Orbe kardinalaren plazatik irtenda, **KALEJIRA** Korko txarangarekin.

**Arratsaldeko 8etan**, **LARRAINDANTZA** izango da Orbe Kardinalaren plazan, nahi duen guztiak parte hartzeko.

**Arratsaledeko 8:30ean**, Orbe Kardinalaren plazan **EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA,** Afaltzaindia taldeak antolatuta.

**Gaueko 10:30ean**, Guillem Alba y Cíak taldeak “Marabunta” **KALE IKUSKIZUNA** eskainiko du San Pelaioko plazan.

**Gaueko 11etatik goizeko 4etara**, Orbe Kardinalaren plazan Vulkano show orkestrak **DANTZALDIA** girotuko du.

**Gaueko 12etatik goizoeko 4etara**, San Pelaio plazan, Beti Txarto taldeak antolatutako **ROCK JAIALDIA** bertako Orihen taldea eta Frenetik eta Rolling Dice talde gonbidatuen partaidetzarekin.

♥ TRATU ONAK YO ♥ BUENOS TRATOS JO ♥ BON TRACTE EU ♥ BOS TRATOS I ♥ GOOD TREATS EU ♥
S MOI ♥ BONS SOINS NIK ♥ TRATU ONAK YO ♥ BUENOS TRATOS JO ♥ BON TRACTE EU ♥ BOS TRA
BON TRACTE JO ♥ BON TRACTE I ♥ GOOD TREATS MOI ♥ BONS SOINS YO ♥ BUENOS TRATOS EU ♥
AK YO ♥ BUENOS TRATOS JO ♥ BON TRACTE EU ♥ BOS TRATOS I ♥ GOOD TREATS EU ♥ BUNUL TRA
♥ BUENOS TRATOS EU ♥ BUNUL TRATAMENT NIK ♥ TRATU ONAK JO ♥ BON TRACTE JO ♥ BON TRACT
RATU ONAK YO ♥ BUENOS TRATOS JO ♥ BON TRACTE EU ♥ BOS TRATOS I ♥ GOOD TREATS EU ♥ BU
♥ BUENOS TRATOS EU ♥ BUNUL TRATAMENT NIK ♥ TRATU ONAK JO ♥ BON TRACTE JO ♥ BON TR
ONS SOINS NIK ♥ TRATU ONAK YO ♥ BUENOS TRATOS JO ♥ BON TRACTE EU ♥ BOS TRATOS I ♥ G

**DILO EN CUALQUIER IDIOMA**
**EN FIESTAS,**

# YO ♥ BUENOS TRATOS

**ESAZU EDOZEIN HIZKUNTZATAN**
**JAIETAN ERE,**

# NIK ♥ TRATU ONAK

**DISFRUTA DE LAS FIESTAS EN IGUALDAD**
**JAIAK BERDINTASUNEZ GOZATU**

AYUNTAMIENTO DE ERMUA
*ERMUKO UDALA*
Departamento de Igualdad - Casa de la Mujer

CONSEJO MUNICIPAL DE LA MUJER
*EMAKUMEAREN UDAL KONTSEILUA*

## UZTAILAREN 26a, IGANDEA

**Goizeko 7etan, TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Gaztela-Leoneko Kultur Zentruak antolatuta.

**Goizeko 7:30ean, BARRUS partidak** Orbe Kardenalaren plazako pilotalekuan.

**Goizeko 8etan, SOKAMUTURRA** izango da Ongarai Eskolako patioan.

**Goizeko 11etan,** Ermuko Txirrindulari Elkarteak antolatutako nazio mailan umeentzako (neska eta mutilak) **2015eko SANTIXAUAK TXIRRINDULARITZA PROBA**, Anbreko industriagunean.

**Eguerdiko 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara, HAURRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.

**Eguerdiko 12etan, NAGUSIEI OMENALDIA** egingo zaie eta **SARIAK ENTREGATUKO ZAIZKIE** Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.

**Arratsaldeko ordu 1ean,** Alboka Musika Eskolako Bandak **KONTZERTUA** eskainiko du Orbe Kardenalaren plazan.





**Arratsaldeko ordu 2etan,** Aritzmendi Pilotalekuan Nagusien Etxeak **HERRI BAZKARIA** eskainiko die aitona-amona bazkideei.

**Arratsaldeko 6etan, ESKUPILOTA** partidak izango dira Orbe Kardinalaren plazan, Pilota Taldeak antolatuta: 4,terdiko partidua Egiguren Etxeberriaren aurka, ondoren neskeen arteko partidua Larrabetzu neska pilotarien elkartearen partaidekin, eta bukatzeko Elordi (Mallabia) – Erostarbe (Urretxu) Errandonea (Bera)- Martinezen (Bera) aurka.

**Arratsaldeko 6,30etatik 9,30etara,** San Pelaio plazan jarriko den gune berezian, "Sie7e" **ANTZERKI IKUSKIZUNA,** Ymedio Teatroaren eskutik, 10 minutu iraungo dituen emanaldietan.

**Arratsaldeko 7etan,** Gari, Montxo eta Joselontxok **PAILAZO IKUSKIZUNA** eskainiko dute Orbe Kardinalaren plazan.

**Arratsaldeko 7etan, KALEJIRA** Irulitxa musika-bandak alaituta.

**Arratsaldeko 7etan, KALEJIRA** Ermuko txarangen eskutik.

**Arratsaldeko 8etan, LARRAINDANTZA** Orbe Kardinalaren plazan.

**Gaueko 10:30ean,** Borja Ytuquepintas taldeak "Sueños de arena" **KALE IKUSKIZUNA** eskainiko du San Pelaio plazan.

**Gaueko 11etatik goizeko 4etara,** Pasarela Orkestrak, **DANTZALDIA** alaituko du Orbe Kardinalaren plazan.

**Gaueko 12etatik goizoeko 4etara,** San Pelaio plazan, Beti txarto taldeak antolatutako **WOLD MUSIC JAIALDIA** Batu eta Tacumah Reggae Band taldeekin.

## UZTAILAK 27, ASTELEHENA

**Goizeko 7etan, TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Gaztela- Leoneko Kultur Zentruak antolatuta.

**Goizeko 7:30ean, BARRUS partidak** Orbe Kardenalaren plazako pilotalekuan.

**Goizeko 8etan, SOKAMUTURRA** Ongarai Eskolako patioan.

**Goizeko 10etatik 11:30era,** Arrozaren banaketa Orbe Kardenalaren plazan eta, ondo-

ren, **PAELLA LEHIAKETA** ezagunari ekingo zaio haur eta helduen kategorietan. Antolatzaile: Lobiano Gastronomi elkartea. Laguntzaile: Ermuko dendari eta ostalarien elkartea.

**Goizeko 11etan,** Martxoak 8 plazan, **SARDINA BANAKETA** nahi duen guztiarentzat, Nagusien Etxeak antolatuta.

**Eguerdiko 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara, HAURRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.

**Eguerdiko 12:30ean, KALEJIRA** Berria txarangaren eskutik.

**Arratsaldeko ordu 2etan,** paella lehiaketara aurkeztutako platerak **DASTATUKO DIRA** eta ondoren ohiko **HERRI BAZKARIA**.

**Arratsaldeko 6etan, ERROMERIA** Orbe Kardinalaren plazan, Lotxo taldeak alaituta.

**Arratsaldeko 7etan, KALEJIRA** Berria txarangaren eskutik.

**Arratsaldeko 7etan,** paella eta aragazki lehiaketeen epaimahikoek **IRABAZLAEAK** ezagutaraziko dituzte eta **SARI-BANAKETA** egingo da Orbe Kardinalaren plazan.

**Arratsaldeko 7,15ean,** Orbe Kardinalaren plazan, **AURRESKUA ETA LARRAINDANTZA** nahi duen guztientzat.

**Arratsaldeko 8etan, ERROMERIA BERRIRO ERE** Lotxo taldeak alaituta.

**Gaueko 10etan, KONTZERTUA** Emon taldearen eskutik.

**Gaueko 11:30ean,** Irulitxa musika-bandaren **ONGIETORRIA** Orbe Kardinalaren plazan.

**Gaueko 12etan, SUZIRIAK** Ongaraiko parkean. Ondoren **KALEJIRA** Orbe Kardinalaren plazaraino eta bertan jaiei agurra emango dien **AGUR JAUNAK.**

**Gaueko 12:30ean, JAIEN AMAIERA** Jeanette abeslariak kontzertua eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.



## 2015eko Santixauak

# PAELLA-LEHIAKETAKO OINARRIAK

**1** Izena eman duen edozein koadrila, txaranga eta pertsona taldek parte hartu ahal izango du. Izena uztailaren 27an Orbe Kardinalaren plazako kioskoan eman beharko da, goizeko 10:00etatik 12:00etara.

**2** Paella bide publikoan egin eta jan beharko da uztailaren 27an. Izena ematean izen bat eta bi abizena eman beharko dira, bai eta telefono zenbakia eta paella zein lekutan egingo den adierazi.

**3** Parte hartzeagatik bakarrik, Ermuko Dendari eta Ostalarien Elkarteak amantala eta 10 mahaikideko arroz pakete bat emango dizkio koadrila edo talde bakoitzari.

**4** Antolatzaileek ez dute inolako sukalde-tresnarik emango (sua, lapikoak…)

**5** Uztailaren 27an Orbe Kardinalaren plazako kioskoan aurkeztu beharko dira paellak arratsaldeko 14:00etatik 15:00etara, epaimahaikoek balora ditzaten. Paella aurkezten den momentuan, txaranga bakoitzak hiru botila-ardo hartuko ditu parte hartzeagatik.

**6** Epaimahaikoak paella egiten ari den lekura joan daitezke, nola egiten ari den ikustera.

**7** Bi sari izango dira:

1. Saria: 500 € eta oparia.
2. Saria: 200 € eta oparia.

**8** Epaimahaikoen erabakia apelaezina izango da, eta Orbe Kardinalaren plazan adieraziko da arratsaldeko 19:00etan.

**9** Lehiaketan parte hartzeak berori arautzen duten oinarriak onartzea suposatzen du. Oinarriok interpretatzeko orduan zalantzaren bat sortzen bada, Batzorde Antolatzaileak erabakiko du.

